



2020SECG0002
2.Bilera:Ezohikoa 2020/02/27

TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILERA-AKTA

ACTA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

<p>BILERA: Ezohikoa BILERA ZK.: 2 EGUNA: 2020/02/27 HASIERA ORDUA: 18:00 AMAIERA ORDUA: 18.54 TOKIA: Udaletxeko bilera-aretoa.</p> <p><u>BERTARATUAK:</u></p> <p>Gilen Garcia Boyra (ALKATEA) Itziar Irizar (EH BILDU) Aritz Larrañaga (EH BILDU) Antxoka Elorza (EH BILDU) Ane Egidazu (DA) Pedro Bengoetxea (DA) Eneritz Gomez (EAJ-PNV) Iñigo Cambronero (EAJ-PNV)</p> <p>Jorge González Endemaño (Idazkaria)</p> <p><u>ESAN-EGINAK</u> <u>ETA</u> <u>ERABAKIAK:</u></p>	<p>JUNTA: Extraordinaria Nº : 2 DÍA: 27/02/2020 HORA DE COMIENZO: 18:04 HORA DE FINALIZACIÓN: 18.54 LUGAR: Salón de reuniones del Ayuntamiento.</p> <p><u>ASISTENTES:</u></p> <p>Gilen Garcia Boyra (ALCALDE) Itziar Irizar (EH BILDU) Aritz Larrañaga (EH BILDU) Antxoka Elorza (EH BILDU) Ane Egidazu (DA) Pedro Bengoetxea (DA) Eneritz Gomez (EAJ-PNV) Iñigo Cambronero (EAJ-PNV)</p> <p>Jorge González Endemaño (Secretario)</p> <p><u>TEMAS</u> <u>TRATADOS</u> <u>Y</u> <u>ACUERDOS:</u></p>
<p>1. Aurreko bilkurei dagozkien akta zirriborroak onartzea, hala badagokio.</p> <p>Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez onartzen ditu 2019/11/27 eta 2019/12/18ko bilkuretako aktak.</p>	<p>1. Aprobar, si procede, actas de las sesiones anteriores.</p> <p>La Junta de Gobierno Local aprueba por unanimidad las actas de las sesiones celebradas el 27/11/2019 y 18/12/2019.</p>
<p>2. Proteisa 2002 S.L. enpresari eskatutako abalak itzultzea, hala badagokio.</p> <p>Ane Egidazu puntu honen hasieran sartu da bilerara.</p>	<p>2. Devolver, si procede, a Proteisa 2002 S.L., los avales solicitados.</p> <p>Ane Egidazu se incorpora a la reunión al comienzo de este punto.</p>



DEBAKO UDALA

2020SECG0002

2.Bilera:Ezohikoa 2020/02/27

- **G.G.:** Proteisa2020k Elizburu eta Amillagako urbanizazio eta eraikuntzei dagozkien abalak itzultzea eta itzultzea faltako direnak bateratzea eskatu du. Abal bakoitza kontzeptu bati loturik dagoenez ezin dira bateratu, beraz Lucianori eskatu zitzaion egoera aztertzea eta txosten bat prestatu du itzuli daitezken abalak identifikatzeko.

Txostenean azaltzen denez, Udalak dituen bermeetatik 231.316,01€ izango lirateke itzuli daitezkeenak, 385.265,68€ko bermeak indarrean mantentzen direlarik.

Nahiz eta obra osoa bukatu arte berme hauek itzultzeko derrigorrezkoa ez izan, enpresari kalteak ekiditeko 231.316,01€ko abalak itzultzea proposatzen dugu.

Inork aurkakorik azaldu ez duelarik, aho batez onartua geratzen da.

- **G.G.:** Proteisa2020 solicitó la devolución de los avales presentados referentes a las obras y urbanización de Amillaga y Elizburu y la unificación de los avales pendientes en uno solo.

Como cada aval está vinculado a un concepto concreto, no se pueden unificar, por lo tanto, se le pidió a Luciano que analizara la situación y ha redactado un informe para la identificación de los avales que se pueden devolver.

Según se muestra en el informe, de los avales que obran en poder del Ayuntamiento, se pueden devolver 231.316,01€, quedando vigentes avales por valor de 385.265,68€.

Pese a que no existe obligación de devolver dichos avales hasta la finalización de las obras, y para evitar daños a la empresa, proponemos la devolución de los avales por valor de 231.316,01€.

No habiendo oposición por ninguna de las partes presentes, queda aprobado por unanimidad.

3. Pleno Aretoa margotzeko proposamena adostea, hala badagokio.

- **G.G.:** Pleno Aretoko sabaia margotzeko proposamen bat azaldu da, lehengo itxura mantentzen du eta aretoa prezio onean pixka bat txukuntzeko aukera izango litzateke.

- **I.C.:** Zenbat kostatuko litzateke proiektua?

- **G.G.:** 1000€ inguru, aurrekontu zehatzagoa eskatu beharko litzateke.

3. Acordar, si procede, la propuesta para pintar el Salón de Plenos.

- **G.G.:** Se ha presentado una propuesta para pintar el techo del Salón de Plenos, podría ser una oportunidad de mejorarlo, a buen precio, manteniendo el aspecto anterior.

- **I.C.:** Cuánto costaría el proyecto?

- **G.G.:** Unos 1000€ aproximadamente, habría que pedir un presupuesto detallado.

- **P.B.:** Podría abrirse a más gente?



DEBAKO UDALA

2020SECG0002

2.Bilera:Ezohikoa 2020/02/27

- **P.B.:** Jende gehiagori zabaltzerik balego? Udalarentzako lan bat izanda, jende gehiagoren proposamenak izatea komeni litzateke.

- **Ane E.:** Honelako gaiak erabakitzeke irizpide batzuk jarraitu beharko lirateke, hautazko erabakia izan beharrean normalizatua izan dadila.

- **I.C.:** Udalak obra bat aurreikusten badu horrelako lehiaketa bat egitea ondo dago, baina kasu honetan proposamen bat daukagu eta mahai gainean dagoena onartzea edo ez da.

- **G.G.:** Irizpide horiek badaude eta hain argi badaukagu, hobe da lehiaketa txiki bat antolatu, araudi bat atera eta pare bat hilabete eman proposamenak aurkezteko eta gero aukeratuko genuke.

Guztiak ados daudelarik, lehiaketa bat egitea erabakitzen da.

Oinarrietan agertu beharko diren puntuak:

- Sabaiaren erdialdea bakarrik margotzea, sabaia edo ingurua eraldatu gabe.
- Diru kopuru finkoa.
- Proposamenak aurkezteko 2 hilabeteko epea.
- Erabakia hartzeko lehenik talde txiki batek filtratu eta gero herriaren bozka.

Siendo un proyecto para el Ayuntamiento convendría abrirlo a más opciones.

- **Ane E.:** Debería haber unos criterios para aceptar este tipo de propuestas para que no sea una decisión arbitraria sino normalizada.

- **I.C.:** Si el Ayuntamiento quiere hacer una obra sí que hay que hacer un concurso, pero en este caso tenemos una propuesta y estamos aquí para decidir si se aprueba o no.

- **G.G.:** Si tenemos claros esos criterios, es mejor organizar un pequeño concurso, crear unas bases y dar un par de meses para que se presenten propuestas y después podríamos seleccionar.

Con acuerdo unánime, se decide crear un concurso.

Puntos que deberán tenerse en cuenta al hacer las bases:

- Pintar el centro del techo, sin modificar el resto de los adornos del techo.
- Presupuesto concreto
- Plazo para presentación de proposiciones de 2 meses
- Selección mediante filtro por un grupo pequeño y votación popular posterior.

4. Martxoaren 8ko Adierazpena adostea, hala badagokio

I.I.: M8ko Adierazpen instituzionalaren zirriborroa

4. Acordar, si así procede, el Manifiesto del 8 de marzo

I.I.: Presentado el borrador de la Declaración Institucional del 8M,



DEBAKO UDALA

2020SECG0002

2.Bilera:Ezohikoa 2020/02/27

aurkeztuz, Debako Udalera egokitzea proposatzen dugu, Tokiko Ekintza Plana aipatzen duen lekuan 2. Berdintasun Plana jarritz, eta Mugimendu Feministaz gain Deban lanean diharduten taldeen izenak ere jarritz Dunamis, Iruleak, etab.).

propone la adecuación del texto al municipio de Deba, sustituyendo la mención al Plan de Acción Local por el 2º Plan de Igualdad y mencionando las agrupaciones que trabajan en Deba (Dunamis, Iruleak, etc...) junto al Movimiento Feminista.

M8ko Adierazpen Instituzionala

-Emakumeen Nazioarteko Eguna-

EMAKUMEEN MOBILIZAZIOAK. Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea.

1952an martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna ezarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE). M8ak emakumeen "grebak" oroitzen ditu, historian zehar euren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak aldarrikatu dituztenak. Borrokek aldaketak ekarri dituzte legetan, gizartean eta kulturean, eta gizarteak berdintasun- eta demokrazia-maila handiagotarantz aurreratu dituzte. Hala ere, emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klase, etnia, adina, kultura, sinesmenak, migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero identitatea edo gaitasunak, besteak beste.

Beijing Ekintza Plataformak 25 urte bete dituenean, belaunaldi berriak bat egiten du giza eskubideak defendatu eta genero-berdintasuna lortuko duten ekonomia, gizarte eta sistema politikoak irudikatzeko borrokan, inor bazterrean utzi gabe. Munduko mugimendu honen ustez generoen arteko berdintasuna ez da soilik oinarritzko giza eskubidea, baizik eta mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria. Garapen Jasangarrirako Helburuetan jasotzen den bezala. **Berdintasuna gizarte osoaren mezu bakar gisa aldarrikatzeko garaia da.**

Emakumeen borrokek eta kaleetako mobilizazioek instituzioei **konpromiso** irmoko ariketa egitea eskatzen digute:

- Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bizitzan;
- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik kentzea eta egiturazko indarkeria horren biktimak erreparatzea;
- Baldintzak eta aukerak eraikitzea izaera guztietako emakumeek tokiko



2020SECG0002

2.Bilera:Ezohikoa 2020/02/27

bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kulturen parte hartzeko;

- Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea;
- Bizitza erdira ekarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea.

Tokiko euskal gobernuok konpromiso horiek gure herri eta hirietan egia bihurtzeko politikak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, eta horrexegatik,ko Udalak **konpromiso irmoa adierazi du berdintasunezko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituen tokiko bizitzan**, honako neurri hauek abian jarriko. Toki-eremuan berdintasunaren konpromisoan aurrera egiteko neurri posibleak:

- Udalerriko emakumeen baldintzak eta egoerak sistematikoki aztertzea baliabide, ondasun eta zerbitzu guztiak eskuratzeari dagokionez, bai eta tokiko bizitzan parte hartzeari dagokionez ere, desberdintasunak identifikatu eta zuzentzeko.
- Tokiko Bizitzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutunari atxikitzea, eta Gutunean zehaztutako konpromisoak aplikatzea bere lurraldean.
- Tokiko berdintasun-politikak bultzatzeko langile eta baliabide nahikoak dituen egitura egonkorra edukitzeko urratsak egitea, toki-mailan edo beste udalerrri batzuekin elkartzeko.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Tokiko Ekintza Plana garatzea, haren eragina ebaluatzea eta emaitzen berri ematea.
- Tokiko arauak arian-arian artikulatzea berdintasun-politikak garatzeko, eta udal jardueran osoan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea.
- Indarkeria matxistaren arretarako eta prebentziorako Tokiko Koordinazio Protokoloa garatzea edota eguneratzea.
- Tokiko jardueretan indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko printzipioaren aplikazioan aurrera egitea.
- Udaleko arau, programa eta zerbitzuen genero-eraginaren ebaluazioa arian-arian garatzea.
- Udalerriko emakumeak ahalduzko programak eta ekimenak garatzeko espazioak eta baliabideak eskaintzea.
- Toki-mailan, emakumeen erakundeekin eta erakunde feministekin etengabe komunikatzeko espazioak antolatzea, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako tokiko politikak diseinatzeko eta ebaluatzeko.
- Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarearekin – Berdintasuna – bat egiteko urratsak ematea. Sare horren helburua da indarrak batzea eta tokiko gobernuak elkarrekin jardutea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako politikak, programak eta zerbitzuak bultzatzeko, indartzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko.



2020SECG0002

2.Bilera:Ezohikoa 2020/02/27

Azkenean, Udal honek dei egiten die herritarrei Emakumeen Nazioarteko Egunaren kariatara Mugimendu Feministak martxoaren 8rako antolatu dituen mobilizazioetan era aktiboan parte har dezaten.

<p>Guztiak ados daudelarik, Martxoaren 8ko Adierazpenarekin bat egitea erabakitzen da.</p> <p>G.G.: Eskari bat egin zen Udaletxeko balkoian pankarta bat jartzeko, "Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna" testuarekin.</p> <p>P.B.: Udaletxeko balkoian inolako pankartarik ez jartzeko jarrerari eusten diote, gaia edozein dela ere.</p>	<p>Con acuerdo unánime, se decide aprobar el Manifiesto del 8 de marzo.</p> <p>G.G.: Se ha presentado una solicitud para la instalación de una pancarta en el balcón del Ayuntamiento con el texto "Martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna".</p> <p>P.B.: Mantiene su postura de no poner pancartas de ningún tipo en el balcón del ayuntamiento, independientemente del tema que se trate.</p>
<p>5. Eskari eta galderak</p> <p>Ezohiko batzarra izan arren, talde guztien aldeko akordioarekin, gaitzerrendan galde-eskeen puntua sartzea onartu da.</p> <p>Pedro Bengoetxeak galdeturik, Gilen Garcia Alkateak Arkitekto Teknikoa, Arkitektoa eta Administrazio Orokorreko Teknikaria kontratatzeke egindako prozeduraren azalpena eman zuen, inor aurka agertu ez zelarik.</p>	<p>5. Ruegos y preguntas.</p> <p>A pesar de ser una Junta extraordinaria, con el acuerdo favorable de todos los grupos, se acepta incorporar el punto de ruegos y preguntas en el orden del día.</p> <p>A petición de Pedro Bengoetxea, el alcalde Gilen Garcia describió el proceso de la contratación de la Arquitecto Técnico, la Arquitecta y la Técnico de Administración General, sin objeciones por parte de los demás grupos.</p>
<p>Besterik gabe bukatu zen bilera. Eztatidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota geratzeko,</p>	<p>Sin más temas que tratar terminó la reunión. Para que conste lo tratado y acordado redactó y firmó</p>



DEBAKO UDALA

2020SECG0002

2.Bilera:Ezohikoa 2020/02/27

nik, idazkari naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egiten dut, lehendakariak ontzat emanda.

este acta con el visto bueno del presidente.

Gilen Garcia Boyra
Alkatea / Alcatea



Jorge González Endemaño
Idazkaria / Secretario

